

Erakusketak,
ipuin
kontaketak,
kontzertuak... ▶ 3



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2007-02-07 ▶ V. urtea ▶ 1.082. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Bederatzi urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak eskualdeko inputatuentzat

'18/98 AUZIA' ▶ Fiskaltzak atzo egin zuen konklusioen irakurketa eta behin betiko eskaria

SALAKETA ▶ Inputatuak: «Eskaria eskubide zibil eta politikoaren aldeko lanaren kriminalizazioa da» ▶ 4

LEITZA ▶

Cederna-Garalur eta Europe Directen laguntzak

Lan arriskuen, prestakuntzen eta abereen inguruan ▶ 7



JOSEBA ORMAZABAL ▶ ESKIATZAILEA

«Urtetik urtera gero eta gehiago entrenatu beharra dago»

Iraupen Eskiko Euskadiko Txapelketa irabazi berri du tolosar eskiatzaileak ▶ 2

ALBIZTUR ▶

Tabernako atea bortxatu zuten lapurretak egiteko

Material ugari ostu zuten ▶ 6

Osifraga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauetz zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com

JOSEBA ORMAZABAL ▶ ESKIATZAILEA

«Urtetik urtera gehiago entrenatzen joan beharra dago»

Joseba Ormazabalek irabazi du Luz Ardidenen eta Gavarnien jokatu den Iraupen Eskiko Euskadiko Txapelketa; hau bere laugarren garaipena da

ESTI EZEIZA

Bizikleta munduan urte askoan ibili ondoren, eskiengatik aldatu zituen gurpilak Joseba Ormazabalek. Aldaketa ongi atetara zaiola esan daiteke, asteburu honetan, laugarren aldiz Euskadiko Iraupen Eskiko txapelketa irabazi baitu.

Zer moduz joan da orokorrean Txapelketa?

Bi proba izan ziren, bata larunbatean, eta bestea igandean. Eta azkenekoan gusturago geratu nintzen. Lehendabizikoan fisikoki ongi ibili banintzen ere, teknikoki akats ugari egin nituen.

Laugarrenak lehendabizikoak bezain beste poztan al du?

Desberdina da, baina poza handia da. Urtetik urtera asko kostatzen da, eta ez da erraza hori lortzea.

Bestalde, presioa ere gero eta handiagoa izango da.

Askotan iruditzen da laugarrena lortzea errazagoa dela. Badirudi eginda daukazula baina ez da horrela. Urtetik urtera gehiago entrenatu beharra dago, ni mailaz igotzen ari baina ere, gainontzekoak ere ari baitira.

Zertan datza iraupen eskiko proba bat?

Mendiak jaitsi eta igo behar dira. Normalean, hiru edo lau igoera izaten dira eta gero jaitsi. Igotzeko eski azpian sokalarriak ipintzen ditugu, hauek, goraka egitean irristatzen laguntzen dizute, eta beheakotan berriz, eutsi. Hauek jarrita igotzen gara, ondoren goian kendu, eta beheuntz jaisten gara. 17-18 kilometro izaten



E. EZEIZA

LAUGARRENA

«Nahiz eta iruditu laugarrena lortzea erraza dela, urtetik urtera gehiago entrenatu beharra dago»

FISIKOKI

«Denetik eskatzen dizu, gorantz egiteko erresistentzia behar da, eta beharantz berriz, indarra»

dira normalean. Dena den guk maldaren arabera neurtzen dugu.

Elurretako mendi maratoi bezala deskriba daitezke?

Iraupen eskiko probak motzagoak izaten dira, maratoi erdiak bezala gutxi gorabehera. Hala ere, Alpeetan-eta egiten dira proba batzuk, eta hauek bai, askoz ere luzeagoak dira. Adibidez, iaz, 12 orduko

bat egin nuen. Normalean, hemengoak bi ordukoak izaten dira.

Zein ezaugarri izan behar dira kirol honetan aritzeko?

Denetik eskatzen dizu, gorantz egiteko erresistentzia behar duzu eta beharantz berriz indarra. Biak behar dira.

Euskal Herrian eskiatzeko ohitura dago, baina iraupen eskirako gutxi.

Konparatu ezkerro bai. Kataluniarrek askotan esaten digute harrituta geratzen direla, ikusita zer nolako afizioa dagoen mendirako eta eski kompetizio-etarako aldiz ez.

Prestaketari dagokionean, nola entrenatzen zara?

Asteazken zehar hemen entrenatzen dugu, korrika, bizikletan eta roleskian. Eta asteburuetan elurretara joaten gara.

Aurten elur gutxi egin du, honek eragina izango zuen.

Bai, baina Pirinioetan bizi direnek gehiago nabaritu dute. Gehiago kezkatzen dira. Orain elur gutxi dago, justu-justukoa. Esaterako, Madrilen asteburu honetan proba bat dago, eta baieztatu didate, egingo bada ere, ibilbidea aldatu dutela.

Zein da egingo duzun hurrengo proba edo txapelketa, Espainiakoa?

Berez duela hilabete jokatu behar zen Espainiakoa, baina hau bertan behera geratu zen eta martxoaren erdi aldera jokatu da. Data berean Alpeetan lau eguneko proba bat jokatzen da, hau munduko onena da eta ziurrenik hona joango naiz. Nahiago dut proba hau korritu emaitza txarragoak izan, Espainiakoa parte hartu izaten dira. Lau egunetako lasterketa hau askoz ere politagoa da eta munduko onenak bertan izaten dira.

Diruari dagokionean kirol garestia da.

Bai, materiala garestia da, eta gainera asko mugitu beharra dago. Nik dena den, zorrea dut babesleak baitauzkat. Esaterako Aralar Kirolak-ek ematen dit materiala.

AMEZKETA ▶

Korrika Batzordearen bilera, gaur

Amezketako Korrika Batzordeko lehen bilera izango da gaur 20:00etan, erabilera anitzeko gelan. Antolatzaileek herritar guztiei zabaldu nahi diete joateko deia, eta ez euskara elkartearen inguruan dabiltzanei soilik.

TOLOSA ▶

Udaberri dantza taldearen bilera izango da bihar

Udaberri dantza taldeak bilera deitu du biharko. Batzorra 20:30ean izango da Igarondoko egoitzan. Hala, oraindik taldearekin harremanetan jarri ez diren kide oihak azaltzera gonbidatzen ditu, urteari buruzko informazioa jaso eta beraien partaidetza bultzatzeko.

TOLOSA ▶

Langabetuentzat gestio kontable ikastaroa

Tolosaldea Goi Mailako Lan-kidetzak Heziketa Institutuak Gestio kontable integrala izeneko doako ikastaroa hasiko du gaur. Goizez izango da eta lantegietan praktikak egiteko aukera izango da

TOLOSA ▶

Inauterietako danborradarako entseguak

Gaur eta bihar Zaldunita Beperako danborradaren entseguak izango dira Kultur Etxeko aretoan, iluntzeko zortzietan.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza.
Egoera oso onean. Altzairu eta guzti.

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak salgai. Azken moduluak. 350m2tik hasita.

Anoeta. 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

Belauntza. Bifamiliarra, 2 solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai, 4.000 m2ko lursailarekin batera.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.
Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

Irura. Eraikuntza berriko bi apartamentu salgai garaje eta trasteroarekin.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariek, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean,

kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Ugarian Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairukoak.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzea.

Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, bainugela eta komunarekin.

Tolosa. San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m2koa, eraberritua, oso eguzkitsua.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin.

Tolosa. Maituna zaharra. 15 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitze.

KULTURA ▶

Inauteriez gain, kultur eskaintza oparoa izango da otsailean

Erakusketak, kontzertuak, Xake Txapelketa, zinema eta ipuin kontaketa saioak izango dira, besteak beste

INIGO TERRADILLOS

Inauteriak izango dira otsaileko kultur egitarauan ekitaldi garrantzitsuenak, dena den, beste hainbat ekitaldi ere izango dira.

ARANBURU JAUREGIA

'Emakumeen aurkako indarkeria ez'. Erakusketa ikusgai, hilaren 24ra arte, 17:30etik 20:30era jaiegun eta asteleheneretan izan ezik.
'Elpuentea'. Pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, martxoaren 3ra arte, 17:30etik 20:30era jaiegun eta asteleheneretan izan ezik.

KULTUR ETXEA

Xake Txapelketa. Eskolarteko



Musikeneko Big Band ariko da etzi, Leidorren. HITZA

Xake Txapelketa hilaren 11n, Tolosako Xake elkarteak antolatuta, goizean.

Xake Txapelketa. Eskolarteko Xake Txapelketa hilaren 25ean, goizean.

Odol ateratzea. Hilaren 26ean egingo dute odol ateratzea, 18:00etan.

BERDURA PLAZA

Inauteri kontzertua. Hilaren 11n, izango da, 12:15ean, Inauteri kontzertua.

ERROTA

Ipuin kontaketa saioa. 4-9 urte bitartekoentzat, hilaren 14an, 18:00etan.

LEIDOR ARETOA

'El leñador'. Filma izango da bihar ikusgai zine forum saioan, 19:15ean eta 21:45ean.

Big Band. Musikeneko Jazz Departamentuko ikasleen Big-Band-aren emanaldia, etzi 20:00etan.

Aiz-orratzeko haur jaialdia. Hilaren 10ean, 17:00etan.

'Maria Antonieta'. Zine saioak ikusgai hilaren 10ean 19:30ean eta 22:30ean, hilaren 11n 19:30ean eta hilaren 12an 20:30ean.

'Gure xagutxo hori'. Gaztetxentzako filma izango da ikusgai, hilaren 11n, 17:00etan.

KULTURA ▶

Inaute Balkoien II. Lehiaketa abian da

Amarozko auzo elkarteak auzokide guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera

ERREDAKZIOA

«Joan den urtean amaroztarraren artean izan zuen arrakastak eraginda», aurtengo Inauterietan ere auzoa moztortzera eta Inaute Balkoien II. Lehiaketan parte hartzera gonbidatzen dituzte auzokideak, «nork bere arte trebetasuna erakutsiz». Lehiaketan parte hartzeko baldintzak Amarotz edo Usabalgo bizilagun izatea eta balkoia Ostegun Gizenean inaute giroz apainduta izatea. 100 euroko saria emango zaio balkoi politenari, eta aipamen berezia inaute giroko koloretzuenari. Epaimahaia Juan Bautista Arantzabek, Maite Sanchezek eta Amarozko auzo elkarteko Guillermo Benito-Huartek osatuko dute.

AISIA ▶

Egun pasa «ahaztezina» eskien gainean

Erredakzioa ▶ Iragan ostiralean, Hirukideko Lehen Hezkuntzako azken mailako 72 ikasle eta irakasleek eski irteera egin zuten. Valdezcaray eski estazioan igaro zuten eguna. Eskiatzen ohituta zeudenak pista guztietan ibili ziren gora eta behera eta lehenengo aldiz eskiak jantzen zituztenek beraien trebezia probatzeko aukera izan zuten. «Irteera ahaztezina» izan zen denentzat. HITZA



Tolosako Udala
IRAGARKIA

Helburua: Errotako taberna ustiatzea
Prezioa: Udalak hileko 238,78 € ordainduko dio kontratatudunari.
Epea: Urte bete, beste hiru urte arte urterotuz luatzeko aukerarekin.
Behin behineko fidantza: 228 €
Behin betiko fidantza: 6.500 €
Hasierako epea: 2007ko martxoaren 1a
Proposamenak aurkezteko epea: 2007ko otsailak 16, eguerdiko 12ak arte.
Informazioa: Plegua interesatuen esku dago Udaletxeko Erregistroan Tolosa, 2007ko otsailaren 5 Jokin Bildarratz Sorron, ALKATEA

Egin egin behar dugu.

www.eginbehardugu.com



'18/98 AUZIA' ▶

Auzipetuak: «Eskubide zibil eta politikoaren aldeko lanaren kriminalizazioa da eskaria»

Fiskaltzak 9 urteko espetxe zigorra eskatu du eskualdeko hiru inputatuentzat

ERREDAKZIOA

Fiskaltzak atzo egin zituen 18/98 auziko konklusioen irakurketa eta behin betiko eskaria. Horren harira auzian inputatuak daudenek, —tartean Mikel Egibar zizurkildarra, Nekane Txapartegi asteasuarra eta Joxe Mari Olarra billabonatarra— «eskubide zibil eta politikoaren alde lan egin dugunoi kriminalizatu egin gaituzte Fiskaltzak egindako eskariekin», esan zuten. Fiskalaren behin

betiko eskaria hasiera batean egindakoa baino txikiago izan da. Auzipetuek salatu dutenez, «komunikabideak horri ematen ari dira garrantzia, baina zigor eskaerak jarraitzen duela da garrantzitsuenak».

Auziaren atzoko arratsaldeko saioaren tartean egin zuten agerraldia auzipetuek eta PSOEren jarrera salatu zuten: «Konponbide politikoaren alde lan egin dugunon kontrako eskaria egitea prozesu demokratikoaren aurkakoa da». Auzipe-

tuek eskubide zibil eta politikoaren alde lan egiten duten erantzuna eskatu dute.

Bukaera fasean

Fiskaltzak bederatzi urteko espetxe zigorra eskatu du eskualdeko hiru auzipetuentzat, ETAko kide izatea leporatuz, hasiera batean eskatutakoa baino gutxiago. Horrela, Egibarrarentzat eta Olarrarentzat 15 urteko eskaria zuten egina hasieran eta Txapartegirentzat 12

urtekoa. Hiru auzipetuak Xaki atalean daude eta atal horretako beste guztiengatik ere eskari berdina egin du.

18/98 auzia bukaerako fasean sartu da, beraz, Enrique Molina fiskalak egindako behin betiko eskariekin. Auziak bi asteko etenaldia izatea eskatu zuten defentsako abokatuek atzo. Tarte horretan beraien konklusioak egingo dituzte eta hilaren 19tik aurrera adierazi beharko dituzte epaitegian.

VILLABONA ▶

Igor Diez eta Juantxo Iraola dira ehiztari txapelak

ERREDAKZIOA

Igor Diez billabonatarra irabazi zuen Loatzo Elkarte ehi-za txapelketa eta Juantxo Iraola zizurkildarra Behar-Zana elkartekoa. Loatzokoan bigarren Juan Jose Olano usurbildarra izan zen; hirugarren Iker Artola usurbildarra eta laugarren Bittor Lasa billabonatarra. Behar-Zana-koan, berriz, Eugenio Perez billabonatarra, Felipe Queralt billabonatarra eta Josu Bernaras billabonatarra, sailkatu ziren hurrez hurren.

Horrela, zortzi ehiztariak izango dira hilaren 24ean jokatuko den Tolosaldeko ehi-za txapelketan.

VILLABONA ▶ POLITIKA

«Antolatzen eta borrokatzen» jarraitzeko esan dute hainbat belaunalditako gazte mugimenduko kideek

ERREDAKZIOA

Villabonako gazte mugimenduan parte hartu duten hainbat belaunalditako gazteek ezker abertzaleko gazte mugimenduaren aurkako azken epaiketaren sententzia salatu eta manifestu baten irakurketa egin zuten. «Antolatzen eta borrokatzen» jarraitzeko esan zuten eta larunbatean Donostian egingo duten manifestazioan parte hartzeko deia luzatu zuten ere. Bestalde, euskal gazte-

riak «Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeko eta gazteriarren problematikei aurre egiteko nahia eta beharra» betidanik izan duela azaldu zuten.

Orain 27 urte «gazte independentista eta ezkertiarren kezkatik» Jarrai gazte erakunde sorta zela gogoratu zuten, «une horretan euskal gazterriak pairatzen zuen problematikari aurre egiteko eta independentzia eta sozialismoaren proiektu politikoa gauzatzeko». Geroztik «milaka izan dira aurrera eramán diren borrokak» eta «milaka jaso ditugun erasoak». «Espainiako eta Frantziako estatuen gustuko ez ez garelako jakina da», zioten.

Haika eta Segiren ilegalizazioek «gazteria erasotu, krimi-



Prensaurrekoa egin zuten gazte mugimenduko kideak. HITZA

nalizatu eta alienatzeko» egin zirela esan zuten. «gazte indarrekin amaitzeko pauso berri bat». Ilegalizazioen gainetik zutik jarraitu dutela eta gazte-

ria «herri honen etorkizuna baita, freskotasuna, iraultzarako izar gorri berriak...» direla zioten. Euskal gazterriak determinazio osoa duela antolaku-

ntza eta borroka bidez Euskal Herria independentzia eta sozialismora eramateko zioten eta «horregatik gazteok osatzen dugun kolektiboarekin amaitu nahi dute».

«Azken eraso 23 kideren aurkako 6 urteko kartzela zigorraren eskaera izan da, Auzitegi Gorenak terroristatzat jo dituelako», zioten eta gazterriaren antolakuntza eta borrokatzeko eskubideak epaituak izan direla salatu. Espainiako Auzitegi Nazionala «ez dela inor euskal gazteria epaitzeko, are gutxiago nola antolatu eta borrokatu behar dugun esateko» gaineratu zuten.

Gazteria kalera ateratzeko eta beraien eskubide zibil eta politikoak defendatzeko garaia dela zioten eta larunbateko manifestazioan parte hartzeko deia egin zuten. Hala, «independentzia eta sozialismoaren bidean antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko konprometua» berretsiz zuten.



dantza
ikuskizuna
LIZARTZAN

Otsailak 9, Ostirala
20:00etan

OTSOLAR dantza taldearen emanaldia

Lizartzako Aztinondo pilotalekuan

'Musika nonahi entzun dadila.'

Arkaitz, Hernani.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa**n ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna
Gizarte-Laguntza
Elkartasuna
Hezkuntza
Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura 5 milioi, kultura jende guztiarengana hurbiltzeko

Aisialdia
Ingurumena



ALBIZTUR ▶ GIZARTEA

NEREA URBIZU

Joan den asteko igandetik astelehenerako gauean zehar Albizturko udaletxean lapurreta izan zen. Kalte material handirik izan ez bazen ere, zer edo zer eraman zuten, eta ziurra dena «lapurrak, benetako lapurrak zirela» da. Herriko Etxea tabernako bi plasma telebista eta dirua eraman zituzten; udaletxean «esku-ordenadore bat eta argazki kamera bat» hartu zituzten. Txerrizaleok elkartean ere sartu ziren lapurrak.

Larraitz eta Olatz Eceiza ahizpek Albizturko udaletxean dagoen tabernan egiten dute lan duela urte eta erdi. Lapurretaren egunean «tabernaren atzealdeko atea hautsi zuten eta zuzenean tabernara sartu ziren. Handik barrutik, Udaletxera joateko eskileretara joan zaitezke, eta baita Txerrizaleok elkartera». Larraitz Eceizak argitu zuen moduan.

«Guk alarma sistema jarrita daukagu, baina tabernara sar-

Udaletxeko lapurreta egiteko tabernako atea bortxatu zuten

Tabernatik bi plasma telebista, dirua, eta udaletxetik esku-ordenadorea eta argazki kamera eraman zituzten tabernako alarma sistema baliogabetu ondoren

tu aurretik obretako eskilera bat hartu eta udaletxean dau den telefono kableak moztu zituzten alarma baliogabetzeko». Ondoren, «tabernako atzeko ateko sarraila hautsi zuten». Barruan ez zuten ezer ukitu edo hautsi: «Lapurreta bakarrik egin zuten. Plasma telebista handia eta jantokiko plasma telebista txikiago bat, bere euskarri eta guzti eraman zituzten». Tabakoa eta han zegoen dirua ere lapurtu zuten.

Dena dela, ez da lapurtzen saiatu diren lehen aldia, «udan ere lanera etorri eta aurreko atea bortxatuta zegoen: sarrai-



Lapurrek udaletxean ostu zuten tabernako atzeko atea hautsiz. N. U.



Tabernaren atzealdeko atetik sartu ziren lapurrak. N. URBIZU

LAPURRAK

Udaletxearen atzealdean ibili ziren, aurrealdean zer edo zer arraroa ikusteko aukera gehiago zegoelako

lagileak lapurtzen saiatu zirela esan zuten». Beraz, «esan daiteke lapurreta egingo zutena espero genuela», baina honen aurrean «ia ez dugu beldurrik sentitu, nolabait ere lapurreta egin zezaketela espero genuelako, horretarako prest geunden, dirua ere bada ez bada etxera eramaten genuen beti».

Telebistak aseguratuta zituzten, baina «okerrago ere izan zitezkeen: ez dugu lana utzi beharrik izan zerbait hautsita zegoelako edo. Telebista berriak daukagu jadanik, eta eguneroarekin jarraituko dugu».

Susmorik ez

Larraitz eta Olatz Eceiza ahizpak ez dira zein izan zitezkeen pentsatzen jarri. «Zertarako? ez du merezi: eraman zuenak eraman zuten, bazekien lapurtzen, lasai-lasai egon zirelako, eta ohostu zuenak eskularrukin egin zuelako, besteak beste. Zein den jakinda ez dugu ezer irabazten; guk ez dugu inoren susmorik, baina ezta beharrik ere». Lapurretaren salaketak Herrizaingo sailan jarri zituzten.

Inork ez zuten ezer ere ikusi: «Zakur bat ere ondoan bizi da eta ez zuten zaunkarik egin». Dirudienez, mendi aldera egiten duen aldean, udaletxearen atzealdean ibili ziren lapurrak, beste aldean bizilagunen bategarri zer edo zer arraroa ikusteko aukera gehiago izan zitezkeelako.

iragarki laburrak ▶

LANA

Langileak. Harreragileak, laguntzaileak, erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.
Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak. Interesatuek deitu 943 44 48 66ra.

TXOTX

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Cederna-Garalur eta Europe Directen diru laguntzak

Lan arriskuak, ikasleentzako prestakuntza, abereak eta zinema munduaren inguruko diru laguntzak dira



Cederna-Garalurrek antolatutako informatika kurtsoa. J. ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Cederna-Garalurrek hainbat alor jorrazten dituen arren, jendearentzat bereziki interesgarriena diru laguntza da. Urtean zehar Nafarroan, Espainian eta Europako Batasunean ere edonorrentzat interesgarriak izan daitezkeen diru laguntzak ateratzen dituzte, baina askotan informazio hau ez zaio jendeari iristen.

Cederna-Garalurreko ordezkaria Leitzan Elena Irigoyen da. «Nafarroan diru laguntza asko ateratzen dira epe motzekoak, eta askotan guk ez dugu jendeari informazio hori iristen zaion», azaldu du Irigoyenek. Gauzak horrela, «gure

helburua informazioa edozein pertsonari iristea da, eta batez ere, enpresa txikiei».

Ondorengo informazioa Cederna-Garalur elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da, eta ondoren azaltzen diren diru laguntzen inguruko informazioa haien webgunean kontsulta daiteke —www.cederna.es/europa—.

Cederna-Garalurrek, Europe Direct zerbitzuaren laguntzarekin, «Nafarroa, Estatu Espainiarra eta Europako diru laguntzen inguruko informazioa jendeari helaraztea du helburu», azaldu du Elena Irigoyenek.

Diru laguntzak

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ondorengo diru laguntza hauek edonorrentzat interesgarriak izan daitezke: lehenengoak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zenbait talderen prestakuntza ekintzak garatzeko ematen dituenak dira. Diru laguntza hau onuragarria izan daiteke ondorengo taldeentzat: alde batetik, Unibertsitateko graduatu-ondokozentzat, LH2ko eta erdi eta goi mailetako heziketa zikloetako tituludunentzat. Eta bestetik, talde berezientzat, hau da,

ezinduentzat, birgaitze egoeran dauden drogazaleentzat, eta espeteratuentzat.

Bigarren diru laguntza lan arriskuei dagokie eta laneko arriskuei aurre egiteko arloan prestakuntza bultzatzea du helburu. Eskaera Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaile integrarekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean diharduten entitateek egin dezakete. Bi deialdien epea bihar amaitzen da.

Ondorengo deialdia abereen inguruko da, arraza garbiko abereak zaindu, aukeratu eta sustatuko dituzten erakundeei eta hazleen elkarrekin bideratuta baitago. Deialdi honetako diru laguntzak arraza garbiko abereak zaindu, aukeratu eta sustatuko dituzten erakundeek eta abere-hazleen elkarrekin jaso ditzakete. Epea martxoaren 19an amaitzen da.

Zinema mundukoak

Zinema mundua gustuko dutentzat deialdi ugari daude, norberaren proiektuak aurrera eramateko lagungarri izan daitezkeenak: luzemetraiak, dokumentalak eta animazio serieak egiteko diru laguntzak, baita ikus-entzunezko jaialdiak antolatzeko ere. Diru laguntza hauen artean, luzemetraiak amortizatzea eta film zinematografiko komunitarioak banatzea helburu dutenak daude.

Dena den, Cederna-Garalurren webgunean informazio hau zabaltzen dute, diru laguntzen atalean.

ELENA IRIGOYEN ▶ CEDERNA-GARALURREKO GARAPEN ERAGILEA LEITZAN

«Helburua diru laguntzen inguruko informazioa gerturatzea da»

N. Garzia ▶ Elena Irigoyen Cederna-Garalurreko garapen eragilea da, ez Leitzaldean soilik, baita Ultzamaldean eta Larraunaldean ere.

Diru laguntzen deialdi asko daude, baina herritarrei iristen al zaizkie?

Askotan, ez. Nafarroan epe motzeko diru laguntza asko ateratzen dira, baina askotan jendeari ez zaizkiola iristen uste dut. **Zein da, beraz, Cederna-Garalur eta Europa Direct zerbitzuaren elkarlanaren helburua?**

Helburu nagusia diru laguntzen inguruko informazioa ger-



J. ASTIBIA

turatzea da. Nafarroako Estatu Espainiarreko eta Europako diru laguntzetan oinarrituz. Horretarako hemen inguruan komunikabide asko dau de.

Nafarroan ere diru laguntza asko izaten al dira?

Bai, eta neurri handi batean hauek dira guri gehien interesatzen zaizkigunak.

Dirulaguntza hauek, zure ustez, zeini zuzenduta daude, orokorrean?

Edozein pertsonentzako deialdiak direla uste dut, baina aldi berean baita enpresa txikientzat ere. ◀

hilberria ▶

Maria Aranzazu Etxeberria Lasa

'MIREN'
(Andrea)

ATZO hil zen, 76 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goiari bego—

Bere senideak: Juanito eta Nemesia Ortiz, Veronica (Miguel Hurtadoren alarguna), Felix (+), Maria Dolores (Julian Lasaren alarguna), Joxe Mari eta Begoña Arrospe, Pakita eta Eugenio Eraso, Domingo eta Manoli Olariaga, Gabina eta Gabriel Galdos, Mari Karmen eta Ignacio Bastida; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaiak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte Gaur Asteazkena, arratsaldeko BOSTETAN, Albizturko JASOKUNDEAREN ANDRE MARIA parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Joakin Ibarbia, 1 - 2. esk (Ordizia)

oharra ▶ gorputz bella Tolosaldeko Funeraria

Vascongada Tanatorioan egongo da.

Errosario Santua 16:45ean errezatuko da.

ORDIZIA-ALBIZTUR, 2007ko otsailaren 7an



hilberria ▶

Pedro Labandibar Etxeberria

Magalean hartuta
belaunen gainean
hantxe jolastan ginen
era bikainean
nahiz eta orain zauden
zeru urdinean
betiko joan zerala
gaude jakinean
zure laztan goxorik
hartu ezinean

Zure bilobak Iñigo eta loritz

OIARTZUN, 2007ko Otsailaren 7a



hilberria ▶

Jose Antonio Zendoia Landa

Otsailaren 5ean hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goiari bego—

Beti barrez, beti jolasean
horrela egongo zara gure bihotzean
berrito ikusi arte, Jose Antonio maitea.

Agirre Alustiza sendia

oharra ▶ meza gaur, 18:30ean,
Urdanetako parroki elizan

AIAN, 2007ko otsailaren 7an



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Lourdes Aritziturri medikuak bideratuko du Alegian egingo den bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia, 17:00etan, Kultur Etxean. Gonbitea luzatu dute egun horretarako, informazioa, prebentzioa edota sintomez gehiago jakiteko.

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebeko gizarte zerbitzuetan izango da eta HHko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Tolosa. Elizbarrutiko bokazio-pastoraltzak 'Jatorrizko deia' izeneko hitzaldia antolatu du 16:00etan Santa Mariako Parrokia eteko areto nagusian.

Tolosa. Zaldunita Bezperako Danborradarako entseguak gaur eta bihar izango dira Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 13an Musika Eskolan Bandarekin, 20:00etan.

Tolosa. Heleta-Baigorri (Behe Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Tolosa. Tolosako Musika Bandak hilaren 11an eskainiko duen Inauteri kontzertuan parte hartzera gonbidatu nahi ditu kide ohiak. Entseguak, astearteak 6an eta osteguna 8an, 20:15ean, Musika Eskolan.

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.
Zizurkil. Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiri literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin.

ZINEMA

Alegia. *Perder es cuestion de metodo* filma ikusgai Gaztebelean, 21:30ean. Sergio Cabrera kolonbiarrarena da. Hilketa



Aizkardiren irteera Gorbeia

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarteak irteera berri bat antolatu du asteburu honetan. Hain zuzen Gorbeia mendia igoko dute oraingo honetan datorren igandean. Bertara joateko interesa dute-

nek izen-ematea elkartean bertan egin dezakete edo 943 694458 telefonora deitu eta Joxanengatik galdetu. Elkartetik herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte irteeran parte hartzera. HITZA

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

gogor baten ondorioz hiltzailea aurkitzen hasten da polizia. Istorio makabroa, gizatasunez betea eta gozagarría aldi berean. Korruptzioa salatzen du..

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik.

Tolosa. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.

Alegia. Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskiniak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Irauli uhinak.
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



gure etxean
euskara
 gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabilitzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAK ateratzen dituen liburuak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia
 Otsailaren 28a baino lehen harpidetu* gero,
oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
 zuk aukeratzen duzun hauetako sagardotegi batean

GIPLUZCOA LARRE GAIN 943 551 896 HERNANI	GIPLUZCOA OTSUA-ENEA 943 956 894 HERNANI	BIKOIARIA IBARRA 946 731 100 ZORROTTZA
ARABA ITURRIETA 945 445 385 ARABAKO	NAFARROA MARTITXONEA 948 604 607 ALDIZ	

Deitu ORAIN!! 943 30 43 45

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du